

TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA

Arabako Errioxa

Maiatza izugarri lehorra izan da; aldiz, ekaineko lehen hiru asteetan, eguraldiari dagokionez, ekaitz handiak izan dira, eta gehiago edo gutxiago eskualdeko eremu guztietan eragin dute. Hala, ekainaren 17an, ekaitz batek 20 l/m² utzi zituen Ebro haranean, Lapueblan, ekainaren 19an 32 l/m² Paganosen, ekainaren 21ean 35 l/m² Moreda Araban, eta ekainaren 22an 50l/m² Eltziegion. Ekaitz horiek ura ekarri dute, ia ez baitu txingorrik bota, eta 116,4 l/m²-ko prezipitazio metatuak eragin dituzte Lezan, eta 62,4 l-koak Bastidako goiko aldean. Txigor apur bat bota duen lekuetan, produktu orbaintzaileak aplikatzeak mahats mordo kaltetuen bideragarritasuna bermatu du.

Ur ekarpen hori oso onuragarria izan da mahastiarentzat, baina ez da hainbeste aprobetxatu orain dela gutxi landu diren eta maldan dauden finketan; izan ere, han jariatu da gehien ura eta herrestan eraman lurra. Hala ere, arindu egin du neurri handi batean mahastiak aurreko hilabeteetan jasaten ari ziren ur defizita, lurzoruko ur erreserbak murriztu baitzituen, eta hezetasuna eta mantenugaiak izateko aukera baldintzatu. Ekaineko azken astean eta uztailleko lehenengoan, egoera antiziklonikoari heldu zaio berriro eta tenperatura altuak egon dira.

Mamitze sasoian, estres hidriko nahikoa izateak baia gazteen hazkundera mugatzen du eta haien etorkizuneko eduki tanikoa zehaztu. Mahats mordoan bilakaera homogenea izan da, arazorik gabe mamitu dira, eta orain mahastia, baien tamaina handitu denez, itxitura fasean dago (L). Egoera hori bat dator aurreko kanpainako data berberetan ikusitakoarekin, eta ohikoa baino astebete lehenago gertatu da. Mahats mordoak ugariak eta tamaina handikoak dira, eta horrek iragartzen du uzta oparoa izango dela. Horiek horrela, baldintza egokiak mantentzen badira, mahats mordoak mehaztu egin beharko dira errendimendu babestuetara egokitzeko. Kolorez aldatzen hasi baino lehen hazkunde begetatiboa eteteari esker, zeina estres hidriko mugatu batek inposatzen baitu -eta ematen du hori gertatzen ari dela-, sustraien konposatu onuragarri guztiak mahats aleetarantz joan ahal izango dira eta ez hazkunde ez-emankorretara.

Osasunari dagokionez, mahastia osasun egoera onean dago. Ekaitzek hezetasun handia utzi dute, eta ohiko gaixotasun fungikoetarako prebentzio tratamenduak egiten ari dira. Ia mahasti guztietan hiruzpalau tratamendu egin dira dagoeneko, eta ekaitz egunetan noiz aplikatu lursailaren egoeraren arabera izan da, batez ere estalirik gabeko lurzorua duten lurzatietan. Zurina ikusten hasi da, eta, horregatik, adi egoteko eta tratamenduak alde batera ez uzteko unea da. Batez ere iparraldeko haizea gehien jasaten duten eremuetan, tenperatura freskoa baitago, egoten da gaixotasun hori zabaltzeko arrisku handiena. Gorrinari dagokionez, uztailleko lehen egunetan orban batzuk ikusi dira Mañuetan eta Samaniegon. Ez da intentsitaterik ikusi izurrietan, hala nola mahats mordoaren sitsarena edo trip-ena, baina egun hauetako tenperatura altuek eta joera bero

eta lehorraren jarraitutasunaren aurreikuspenek izurriteen presentzia erraztuko dute, hala nola eltxo berdearena.

Mahastietako lanei dagokienez, tratamenduez gain, puntak eta hostoak kentzen jarraitu da, hostoak batez ere iparraldera begira dauden aldeetan kendu direlarik, mahatsondoek intsolazio handiagoa izan dezaten eta, gainera, aplikatutako produktuen eraginkortasuna hobetu dadin. Haizeak gehien astintzen duen eremuetan, aihen berdeei puntak kendu zaizkienez, hausturetatik babestu ahal izan dira.

Aiaraldea

Ekaitzak berdin protagonista izan dira haranean azken asteetan. Prezipitazioak, kasu batzuetan 80 l/m² artekoak, onuragarriak izan dira mahastiaren garapenerako; izan ere, mahastiek ez zeuzkaten beren premia hidrikoak asebeteta kimatu zirenetik. Hala ere, inguru honetan, ekaitzak bai erori dira txingor zaparrada moduan, eta horrek eragin handia izan du Aiaraldean (Murgan, hain zuzen ere). Orbaintzeko tratamenduak aplikatu diren arren, kaltetutako mahats mordo horiek motel suspertzen ari dira.

Tratamenduei dagokienez, tratamendu kuprikoak aplikatzeko maiztasuna areagotu egin behar izan da, ekaitzen ondorengo hezetasun handiak gorrin endemikoa garatzeko probabilitatea izugarri handitu duelako.

Mahats mordoak, oro har, ilar egoeran daude (K), baina modu heterogeneoan; izan ere, apirilean izozteek eragindako lurzatietan, egoera atzeratuagoan daude. Izozte horien ondorioz, hein batean, ere Hondarrabi Zurian espero diren errendimenduak iazkoak baino txikixeagoak izan daitezke.

Guardia, 2023ko uztailaren 4a

MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA